



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-06-14**

VI. URTEA 1.460. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Iñaki Azaldegí, Asier Hormaza, Mikel Uzkudun eta Jokin Azkue, atzo, aurkezpenan. EEZEIZA

URTEURRENEKO AZKEN EKITALDIA, 'HOR AL ZAUDE?' ANTZEZLANA

TOLOSA Aitzol Euskaltegiaren 25. urteurreneko egitarauaren baitakoa da; hilaren 20an izango da, Leidor aretoan, 20:30ean 3

Lau lubaki berri egingo dituzte Rondilla kalean eta Kondeaneko Aldapan

TOLOSA Oria eta Zelai ibaien uraren kalitatea hobetu nahi dute, saneamendu kolektore berria jarri; datorren astean hasiko dira obrekiz

**Ibarra, Zizurkil
eta Asteasu
Xibaren
finalerako
sailkatuta daude**

TOLOSALDEA Hilaren 28an, larunbata, jokatuko dute V. Xiba jaialdiaren finala, Zuberoan 6



Gizonezko bat hil da bere buruari su eman ondoren

TOLOSA Atzo, 19:10 inguruan gertatu zen, Triangulo plazan; 45 urteko tolosarra zen 4

Pultsulari onenen arteko lehia

ZIZURKIL Senior mailako Euskadiko Federazioen Arteko Txapelketa izango da gaur, 18:00etan 5

Zerkausiaren ganean, txirrinduan eta musikarekin 5



HITZak eskualdeko iragarki laburren euskarazko webgunea sortu du

Hedabideak » Eskualdeko euskarazko iragarki laburrak jarri, ikusi eta aurkitu daitezke atzo aurkeztu zuten webgunean.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko euskarazko iragarki laburren azoka da *tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com*. Etxeak, autoak, bizikletak, motorrak edo beste zerbaitezko eta erosteko, lana eskaintzeko, eskatzeko, pisukideak bilatzeko, bidaideak aurkitzeko, eta beste aukera askotarako atek zabaltzen dituen eskualde mai lako azoka handia, eta erabilerraza.

Ehunka iragarki aurki daitezke bertan, hainbat ataletan sailkatuta, nahi dena erraz aurkitzeko biltzaile garatuekin, eskaintzaren, prezioaren, lekua eta beste hainbat aldagairen arabera.

Eskualdeko iragarkiak

Eskualdeko herri guztietako etxebizitzak, bigarren eskuko autoak eta gainerako iragarkiak izango dira aurrerantzean ikusgai webgune berrian, saltzeko, erosteko, trukatzeko eta antzekoetarako interesa duten erabiltzaileen eskura.

Webgunea diseinatzerakoan garatu diren datu baseei esker, prezioaren, herriaren eta beste zenbait aldagairen arabera egin daiteke bilaketa, hartara herri zehatz batean salgai dauden etxeak eta autoak, eskaintzen diren lanak eta gainerakoak erraz bilatzeko moduarekin. Eskualdeko iragarkiak bilduko ditu, bada, baina erraz aurkitu ahal izango dira herri zehatz batekoak bakarrik ere.

Norbanakoek, doan

Iragarkiak bilatzea, horiei buruzko informazioa eskatzea eta posta elektronikoz jasotzea edonoren eskura egongo da, erabat doan.

Iragarki bat jartzeko, berriz, egin beharreko bakarra erabiltzaile bezala erregistratzea da, horretarako datuak sartuta. Behin hori eginda, norbanakoek dohainik ja-



iragarkilaburrak.com atarian era guztietako eskaintzak, eskariak, ... izango dira ikusgai hemendik aurrera. HITZA

ri ahal izango dute iragarkia webgune berrian, eta erabiltzaile izena eta dagokion pasahitzajasoako dute berehala.

Horiekin, eskaintzen dutenaren argazkiak ere sar ditzakete, nahi dutenaren dagokien iragarkiak eta bertako datuak aldatzeko, argaz-

kiak gehitzeko, edota iragarkia ezabatzeko edota beste bat sartzeko aukerarekin.

Paperean ere bai, astero

iragarkilaburrak.com webgune hori, gainera, paperean ere plazaratuko da, astero.

Ostiraletan argitaratuko da, eta zabalkunde handia izango du. Hasiara batean, 100.000 ale banatuko dira: HITZA guztiekin eta *Berria* egunkariarekin, eta *Txintxarri*, *Ba*rra eta *Guaixe* aldizkariarekin.

Horrez gain, Bilbon, Iruñean, Gasteizen eta Hendaian ere bana-

tuko da paperezko gehigarria, hainbat lekutan.

Iragarkia jartzeko, webgunea edo HITZAren erredakzioa

Iragarkiak argitaratu ahal izateko, bi bide izango dira: orain arteko bidea, batetik (erredakzioa joanda ala telefonoz deituta sartu ahal izango da iragarki laburra HITZan, interneteko orri berrian eta papereko gehigarrian); bestalde, *tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com*

» IRAGARKI LABURRAK

Euskarazko iragarki laburren webguneak honako atalak ditu, norbanakoek eta enpresen iragarkiekin.

- **Etxebizitza.** Salgai, errentan eman, errentan hartu, pisua konpartitu...
- **Motorra.** Salgai.
- **Garajeak.** Salgai, errentan eman, errentan hartu...
- **Lana.** Eskaerak, eskaintzak...
- **Irakaskuntza.** Eman, hartu...
- **Denetarik.** Salgai, galdu, aurkitu, eman, harremanak...
- **Bidaiak.** Eskaintzak.

Estekak

■ **'tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com'** da HITZak sortu duen eskualde mailako azoka.

■ **'iragarkilaburrak.com'** da Hitzan, hainbat herri aldizkariaren eta Euskal Herri mailako iragarki laburrak bilduko dituen webgunea.

helbidetik bertatik ere sartu ahal izango du iragarki laburra erabiltzaileak.

Papereko, datorren astetik aurrera

Iragarkilaburrak.com papereko gehigarria, zortzi orrialdekoa izango da eta Euskal Herri osoko eskaintza jasoko ditu, datorren ostiraletik izango da kalean. Hau astero (abuztuan ez). TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZako harpidedunek egunerokoarekin batera jasoko dute ostiraleko gehigarria, eta zabalkunde handia izango du, euskarazko produktu batek maiztasun horrekin inoiz izan duen zabalkunderik handienetakoa (100.000 aletik gora astero), hain zuzen ere. Aukera bikaina, bezaraz, zuen iragarkiak ere barnerratzeko.

Denak webgune batean bilduta

'www.iragarkilaburrak.com'

» Oraingo 15 bat webgune egongo dira hainbeste herri eta eskualdetan, denak orri nagusiarekin lotuta.

ERREDAKZIOA

HITZak *tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com* webgunea sortu duen arren, egitasmo zabalago baten baitako ekimena da azoka berria.

Izan ere, Hitzan eta hainbat herri aldizkariaren artean sortutako euskarazko iragarki laburrak bildu eta bakar batean ere izango dira

ikusteko moduan: *www.iragarkilaburrak.com* webgunean, zehazki. Bertan, eskualdeetako webguneetan bildutako iragarki laburrez gain, Euskal Herri mailako beste hainbat eta hainbat iragarki ere ikusi eta kudeatu ahal izango dira.

Bertako Hedabideen (EKT) proiektua

Bertako Hedabideek jarri dute martxan proiektu hau, eta horretarako hainbat eragilearekin akordioak lortu dituzte (Hitzekin ez ezik, *Berria*-rekin eta hainbat herri-komunikabiderek). Urola-Kostako HITZA-ko bazkideetako bat dira Bertako Hedabideak, eta EKT sor-

tu zenetik ari da HITZA proiektuak eta euskarazko prentsa oro har sustatzen.

15 webgune inguru bakar batekin lotuta

Oraingo 15 bat herri-atarik egin dute bat ekimenarekin, eta guztiek eskainiko dute tokiko iragarki laburren orrialde propioa, denak ere *iragarkilaburrak.com* orrialde nagusiarekin lotuta. Bertako Hedabideek Euskal Herriko herri-atarik guztiei eskaini diete ekimenarekin bat egin eta tokiko iragarki laburren orria sortzeko aukera.

Hilberria

SANTI INDAKOETXEA ARTOLA



Ohore handia izan da zu gure laguna izana, zuek jasotako muhu guztiak orain zuretzat uzten ditugu

OIARTZUN
2008ko
ekainaren 14a

Zure betiko koadrila

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Iñaki Azaldegi Udaleko euskara teknikaria, Asier Hormaza aktorea, Mikel Uzquidun Aitzol euskaltegiko zuzendariordea eta Jokin Azkue alkateordea, atzo, antzezlanaren aurkezpenean. E. EZEIZA

Aitzolen 25. urteurreneko ekitaldiak amaitzeko, 'Hor al zaude?' antzezlan

Kultura » Hilaren 20an izango da, Leidor aretoan, 20:30ean; Asier Hormaza, Ainhoa Aierbe eta Aitor Gabilondo dira aktoreak.

IÑIGO TERRADILLOS

Aitzol Udak Euskaltegiak 25. urteurreneko ekitaldien baitan antolatuta, Kanpingags konpainiaren *Hor al zaude?* antzezlan izango da ikusgai datorren ostiralean, hilaren 20an, Leidor aretoan, 20:30ean.

Joseba Apaolaza da antzezlanaren zuzendaria, eta aktoreak, berriaz, Ainhoa Aierbe, Asier Hormaza eta Aitor Gabilondo. Hain zuten ere, Asier Hormaza izan zen atzo ekitaldiaren aurkezpenaren eta obraren nondik norakoak azaldu zituen. «Komedia, drama, magia eta suspensea uztartzen ditu. Abiapuntua elkarrekin bizitzera joandako bikote gaztea da; Ane eta

Patxi. Orduan hasten dira zalantzak; 'Hor al zaude benetan? Uleritzen al nauzu benetan? Elkar ezagutzen al dugu benetan?...'. Hor badago norbaitedo zerbaite, eta une horretatik aurrera hankaz gora jarriko zaie bizitzan».

Obraren egilea Javier Daulte argentinarra da. Asier Hormazak azaldu zuenez, lana bere eskuetan izan zuenean euskaratua izan behar zuela ez zuen zalantzarik izan. Joseba Apaolazak ikusia zuen antzezlan, eta azkenean, euskarazko bertzioa berak zuzentzea erabaki zuten. Apaolazarentzat lehen lana izan da zuzendari bezala. Obra euskaraz pasa den urteko abenduan estreinatu zen Donostian, eta ordutik kritika oso onak jaso ditu. «Jendeari asko gustatu zaio, izan ere, ikusleari momentu desberdinak bizitzeko aukera ematen dio; lan honekin, duen aberastasunarengatik, euskal antzerkigintzan aurrerapauso bat eman dela esan daiteke».

Bestalde, euskarari dagokionez, erregistro desberdinak erabili dituzte. Asier Hormazak bizkaitarra den arren, hikaz egingo du, Ainhoa Aierbe gipuzkoarra da, baina bizkaieraz ariko da, eta Aitor Gabilondok hitz egiterakoan euskaraz batuz egiten dute. Bizilagunari, berriaz, gaztelera egiten diote.

Ekitaldi ugari urteurrenagatik

Mikel Uzquidun euskaltegiko zuzendariordeak azaldu bezala, euskaltegiaren 25. urteurrena delako eta antolatutako azken ekitaldia izango da datorren ostiralekoa. «Irailean eman genion urteurrenari Kultur Astearekin, eta ordutik hainbat ekitaldi antolatu ditugu hilero; ikasturteari eta urteurrenari amaiera emateko bi ekitaldi garrantzitsu izan ditugu: bata gaur amaitzen den pintura erakusketa, eta bestea datorren aste antzerkia». Uzquidunek eskerrak eman nahi izan zituen ekitaldi hauek antolatzen lagundu dutenei.

Lubaki berriak egingo dituzte Rondillan eta Kondeaneko Aldapan

Azpiegiturak » Lau lubaki egingo dituzte; datorren hasiko dira lanekin; ibaien uraren kalitatea hobetu nahi da.

ERREDAKZIOA

Ura Uraren Euskal Agentzia eta Tolosako Udak «Oria eta Zelai ibaien uraren kalitatea hobetu» nahi dute bertara botatzen diren ur-lohiak bilduz. Horretarako, herriko saneamendu sistema hobetuko dute saneamendu kolektore berri bat jarritz. Jarduera honek, egun ibai hauetara botatzen diren ur-lohiak bildu eta Tolosako saneamendu sistema hobetuko du.

Ezinbesteko jarduerak direla hauek dio Udak «tolosarrek egoera oneko flora eta fauna eta ur garbia izango duten Oria eta Zelai ibaietaz gozatu dezaten».

Rondilla kalean hiru lubaki

Hala, «herritarrei ahalik eta eragozpen gutxien sortuz», Tolosako Udala zenbait lan egiten ari da herriko toki desberdinetan. Rondilla kalean, esaterako, hiru lubaki berri egingo dituzte aurki. Lehena Triangulo inguruan egingo dute. Hemen kolektoreak izango dituen putzuetako bat egingo da. Lan hauei datorren astean emango zaie hasiera eta urte bete beharko dute amaitzeko. Hasiera batean egiteko zen putzuaren neurria txikiagotu eta inguru honetako zuhaitz gehienak salbatzea lortu dutela adierazi dute Udaketik. Inguru honetan egingo diren lanak direla eta ezinbestekoa izango da zirkulazio errai bat mozte, baina Rondillatik San Frantziskorako sarbidea zabalik utziko dute.

Horrez gain, San Frantzisko aurrean dagoen autobus geralekua frontoia altueran jarri beharko dute autobusa hartzen dutenei sarrera errazteko.

Bestalde, Zumalakarregi kalea trafikora itxiko dute, eta bertan aparkalekuak dauzkatenek baino ezingo dute bertatik igaro, eta San Frantzisko kaleko taxiaren gerale-

kua Trianguloko plazara aldatuko dute.

Bigarren lubakia Musika Eskola parean egingo dute. Bi hilabete beharko dituzte aipatu lubakia egiteko, iraila eta urriaren zehar. Hilabete hauetan bide bat itxiko dute, baina, zabalik egingo dasar bide errai bat.

Rondilla kaleko hirugarren lubakia kalearen bukaeran, Rondilla eta Barrena kaleak bat egiten duten gunean egingo dute. Inguru honetan ere norabide bat utziko zaio zabalik trafikoari. Horrez gain, gunen honetan dauden txandakako aparkalekuak iraillean zabalduko dituzte. Rondilla kaleko azken lubaki hau ekainaren 18an hasiko dira egiten eta abenduaren hasierarako egingo da bukaturik.

Kondeaneko Aldapan bat

Kondeaneko Aldapan, beste lubaki bat egin beharko dute 16 eta 18 zenbakien parean. Lan hauek ekainaren 17tik uztailearen 21era bitartean egingo dituzte. Kale honetako zenbaki bi hauen parean mugaturik egingo da sarbidea, baina kale honetako 20 zenbakiaren aldatatik igaro ahalikoa da.

Ura Uraren Euskal Agentziaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak eta Tolosako Udala tolosar eta Tolosara datozen datozen gutzietan, ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko neurriak hartzen ari direla azaldu dute. Ondorengo helburua dute obra hauek: «Tolosa eta bertako biztanle gutzietan bizi-kalitatea hobetzea. Beraz, lanak ahalik eta hobekien egin, eta arazo gutxien sortuz, ibaiak lehen bait lehen garbi eta osasuntsuago egon daitezten, garrantzi handikoa da denon lan-kidetzaz izate».

Tolosako Udak herritarrei, lanen martxari buruzko informazio puntuala ematen jarraitu eta lanak eragiten duten tokietan sortzen diren trafikoa arazo berri emango duela duela adierazi dute. Aste honetan bertan, herriko zenbait elkarte eta talde desberdinekin bildu dira Udaleko ordezkariek «danen martxa eta arazoei buruzko informazio zuzena emateko», eta hala egingo dute aurrera begira ere.

Ingelesa
ikasi nahi al duzu?

Ikastaro trinkoak
Hasiberri eta aurreratuentzat
uztailean goizez

PAUSOKA akademia
Berazubi, **TOLOSA**
627 008 439 • 686 971 962
jatorrizko irakaslearekin

GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA DONOSTIA

Teoria eta praktika
Ekainaren 30etik uztailearen 25era
eta Irailaren 1etik 26ra
Orduetgia: 09:00etatik 13:30era,
astelehenetik ostiralera
Ikastaroaren prezioa: 300 euro
Izena emateko:
943-32 71 72 (Gipuzkoako AEK)

IZAN IRAKASLE AEKni!

æk

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Bai Euskarari Ziurtagiria
gu ziur gaude

zuzendaritza
943 40000

1.500 irakurle dago jatorriko



Emauseko Ekocenterrera bisita

INGURUMENA ■ Ernioaldea Udaltalde 21 osatzen duten udalerrietako lagunak Emauseko Ekocenterrera joan ziren bisitan. Aurreko astean, Aste Berdea zela eta, lehen bisita egin zuten, eta izan zuten arrakasta ikusita, bigarren bisita hau antolatu zuten. Belartza poligonoan dagoen zentro honetan erabilitako hainbat gauza jasotzen dituzte eta saikatu eta konpondu ondoren, salgai jartzen dituzte. Bisita honetan prozesu guztia eza-gutzeaz gain kartoizko estutxeak egin zituzten bisitariak. **HITZA**



Etxebarrieta gogoan izan dute

TOLOSA ■ Joan den larunbatean, hilak 7, Txabi Etxebarrietaren erailketaren 40. urteurrena bete zen. Hori dela eta, haren oroimenez, Tolosako ezker abertzaleak «omenaldi xume bat» egin zion Etxebarrietari. 1968ko ekainaren 7an, Guardia Zibilak hil zuen Benta Handin. Bera izan zen lehen etakide eraila, eta bera izan zen ere, ETren lehen biktimaren hiltzailea. **HITZA**

Ekain beltza berriarekin

eleBERRI beltzArekin



Utzi ezinik irakurtzeko modukoak

Lau liburu:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€



OHARRA: Irteerak biltzeko biltzaile arteko eskaintza



Ertzaintzak gorpua estali du, epailearen zain zegoen bitartean. **L. GARCIA**

Gizonezko bat hil egin da bere bururari su emanda

Tolosa ■ Triangulo plazan gertatu zen atzo arratsaldean; su eman aurretik disolbatzailea bota zuen burutik behera.

ERREDAKZIOA

Gizonezko bat hil egin zen atzo arratsaldean bere buruari su eman ondoren. Tolosako Triangulo plazan gertatu zen ezbeharrak eta hil-

dakoa tolosarra zen eta 45 urte zituen.

Udaltzaingoak azaldutakoaren arabera, 19:10ak inguru zirenean gizonezkoak disolbatzailea bota zuen burutik behera eta ondoren su eman zion bere buruari.

Laguntza medikuek ezin izan zuten ezer egin

Laguntza medikuek gizonezkoak suspertzen saiatu ziren arren, ezin izan zuten ezer egin eta Triangulo

plazaren ondoan, errepedean, hil zen gizonezkoa. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren iturriek azaldu dutenez, hildakoa tratamendu psikiatrikoa jasoa zuen ezbeharrak gertatu aurretik.

HITZAK bere edizioa itxi aurretik, oraindik epailea azaldu gabe zegoen ezbeharrak gertatu zen lekura. Epailea etorri zain, Ertzaintzak autoak eta izara batekin estalita zuen gorpua zegoen lekua.

Ficoban ikusgai den Ongi Etorri azokan izango da Tolosa ere

Aisia ■ Gastronomia, turismoa, aisia eta merkataritza izango dira muga arteko lehen azoka honen ardatzak.

ERREDAKZIOA

Aurten, lehendabiziko aldiz, mugen arteko Ongi Etorri azoka turistikoa ospatzen da Irungo Ficoban. Herenegun aurkeztu zuten egitasmoa Biarritzen, Palais hotelean. Ekitaldi ireki eta parte-hartzaile gisa definitzen dute antolatzaileek. Honek Gipuzkoako inguruak eza-gutara emateko aukera eskainiko du. Kostaldetik hasi, eta barnealderaino. Honenbestez, Ordizia, Hondarribia, Azpeitia eta Oñatirekin batera, Tolosa ere han izango da. Tolosako Udalak 144m2 stana izango du azoka honetan. Turismoa, gastronomia, aisia eta merkataritza izango dira azoka honen ardatzak.

Ficobara hurbiltzen direnek Gipuzkoako zapore, ohitura eta tradizioetaz gozatzeko aukera izango dute, baina hori bai, miniaturan. Euskal Herriko probintziaren xar-



Tolosa Gourmeteko ordezkariak Miarrizten egindako aurkezpenean. **HITZA**

matustiko, paisajistikoa eta kulturalak biltzen dira Ongi Etorriko gunean. Honenbestez, aisiarekin eta gastronomiarekin lotutako hainbat ekintza gauzatuko dira. Besteak beste, pintxoak, Idiazartaritza izango dira azoka honen ardatzak. Bestalde, erosketak egiteko gune berezi bat ere izango da eraikinean. Non moda, oinetako, kosmetika eta dekorazioarekin lotutako 31 dendetan deskontuak egingo diren.

Artisautzari zuzendutako gune bat berezi bat ere egongo da Irungo Ongi Etorri azokan. Bertan, artisauek nola egiten duten lan ikusi ahal izango dute bisitariak. Egurra, larrua, beira eta esku-pilotak landuko dituzte besteak beste, jendaurrean. Bestalde, erosketak egiteko gune berezi bat ere izango da eraikinean. Non moda, oinetako, kosmetika eta dekorazioarekin lotutako 31 dendetan deskontuak egingo diren.

Zerkausiaren gainean, pedalei emanez

Gizartea » Kilometroak 2008k Bizikleta Festa antolatu du hilaren 28ko arratsaldean, Tolosako Zerkausiaren terrazan.

MANOL GARCIA

Kilometroak 2008ko Ikuskizun Batzordekoei, zer antolatu pentsatzen ari zirela, azkenaldian arrakasta izaten ari den kirol praktika bat etorri zitzaizen burura: spinning edo cycling, hau da, musikaren eritimoa bizikleta estatiko batean pedalei eragitea. Eta horrela sortu zen Bizikleta Festa egitearena: ia 100 lagun cycling egiten Tolosako Zerkausiaren gainean.

Xabier Saizarrek, Irurako Ikastolako irakaslea eta Bizikleta Festaren antolatzaileetako bat, azaltzen duenez, «ideia polita iruditu zitzaigun hainbeste jende batera Kilometroaren alde pedalei ematea Zerkausia bezalako leku batean».

Hilaren 28an egingo da ekitaldia. 16:30ean hasiko da eta lau saio izango ditu, bakoitza 50 minutu-



Xabier Saizar eta Onintza Arregi cycling egiten. I. GARCIA

koa. Guztira 92 bizikleta izango dira eta partaide bakoitzak saio batean edo laurretan parte hartu ahal du. Saio batean izena ematea 10 euro balio ditu, bitan 18 euro, hirutan 26 euro eta guztietan 34 euro.

Festa hau antolatzeko Anoetako, Ibarako, Villabonako, Tolosako eta Ordiziako kiroldegien laguntza izan dute. «Zailena bizikletak lortzea zen eta kiroldegi horiegi guztiei esker izango ditugun», dio

Saizarrek. Antolakuntzak edateko jarriko die parte-hartzaileei. Eskuhoiala beharrezkoa da eta hori bakoitzak berea eman behar du.

Giro berezia

Monitoreak Tolosako, Villabonako eta Anoetako kiroldegikoak izango dira eta Bizkaitik etorriko diren bilagun. Anoetako kiroldegi-ko arduraduna den Onintza Arregi

izango da monitoreetako bat. «Festa berezia izango da. Cyclingarekin gehiago disfrutatu daiteke gero eta jende gehiago batera parte hartuz gero», dio Arregik. «Giro berezia izango da, partaideak leku ezberdinetakoak izango direlako eta monitoreak ere ezberdinak izango dira». Antolatzaileek azaltzen dutenez, ekitaldia ez da maratoi bat bezala pentsatu. «Festa bat da», dio Saizarrek. «Horregatik ahal den jende gehienak izena ematea gustatuko litzaiguke».

Txanda bakoitzean hiru monitore izango dira. «Bakoitzak bere estiloa du», dio Arregik, «eta hori ere interesgarri a izango da partaideentzat». Dagoeneko eskaintzen diren lekuen erdiak baino gehiago hartuak daude. Kontuan izan behar da ere, festaren amaieran kirol materiala zozketatuko dela.

Galderaren bat izanez gero, kmk.ikusizunak@ikastola.net helbidera idatzi edo 688 65 80 04 zenbakira deitu daiteke. Festan parte hartzeko www.kilometroak.net helbidea sartu eta bertan eman behar da izena.

Emakumea Pilotari Eguna antolatu dute gaur egun guztirako Iruran

ERREDAKZIOA

Aurtengo Emakumea Pilotari Eguna gaur egingo dute Irurako pilotalekuan. Bertan elkartuko dira, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak 2004tik martxan duen Emakumea Pilotari proiektuaren baitan, aurtengo ikasturtean emakumeen 25 urtetik gorako paleta ikastaroetan aritu diren emakumeak. 60 lagun inguru ariko dira.

Azken festa honetan, Emakumezkoen Gipuzkoako Partaideentzako I. Txapelketa Herrikoia jokatuko da. Txapelketa honetan ikastaro bakoitzeko emakumeek euren ordezkaritza izango dute. Horrez gain, paleta saioak ere izango dira, ikasturtean zehar egindako hainbat ariketekin. Bazkaria eta festa giroa ez dira faltako. Egunari hasiera 10:00ak aldera emango zaio eta 20:00ak aldera arte luzatuko da festa.

Laburrak

Herri Ikastolan ikasturte amaierako festa, bihar

ANOETA • Anoetako Herri Ikastolak ikasturte amaierako festa antolatu du biharko. Ibilaldi neurtua, kalejira, erakusketa, ikasleen eta gurasoen arteko futbol partida, ikasleen emanaldia, musika eskolako trikitilariak, malabarrak, bazkaria eta musika eskolako ikasleen eskutik animazio musikala izango da festaren zehar egongo den egitaraua.

Onddolar, errausketaren aurkako manifestazioarekin

VILLABONA • Onddolar plataformak bat egiten du gaur Donostian egingo den errausketaren aurkako manifestazioarekin. Boulevardetik 18:00etan aterako da, *Alternatibak martxan jarri, errausketarik ez lelopean*. Onddolar-ek parte hartzera deitzen du.

Senior mailako pultsulari onenek indarrak neurtuko dituzte

Zizurkil » Euskadiko Txapelketa izango da jokoan gaur, 18:00etan hasita, Intxaur pilotalekuan.

I. GARCIA

Marian Lazkano alkateak eta Batis Kortajarena Danena-Olaederra taldeko arduradunak Euskadiko Federazioen Arteko Txapelketa aurkeztu dute. Gaur izango da lehiaketa, Zizurkil Goiko Intxaur frontoian eta senior mailako pultsulari onenak ariko dira lehian.

Gipuzkoako taldean Danena-Olaederrako Teddy Martinez, Ekaitz Kortajarena, Jon Tecedor eta Andoni Kortajarena ariko dira. Horiez gain Zarautzeko Borja Bra-



Batis Kortajarena eta Marian Lazkano, txapelketaren kartelarekin. I. GARCIA

vo izango da taldean. «Etxean jokatzen dugunez», azaldu du Batis Kortajarenak, «gogo handiz saiatuko gara lehiaketa irabazten».

Gipuzkoarekin batera, Araba, Bizkaia eta Nafarroa ariko dira lehian. Aurkari nagusiak Bizkaia eta Nafarroa izango dira. «Nafarroako taldean bulgariar bat dago, nazioarteko maila duena», azaldu du Kortajarenak. «Araba izango da talde ahulena. Zailtasunak dituzte pultsulariek senior mailan jarraitu dezaten».

20 urtetik gorakoak dira senior mailakoak eta kirol honetan ez da erraza izaten adin horretako kirolariak egotea. «Esfortzu handia eskatzen duen kirol bat da», dio Danena-Olaederrako prestatzaileak.

Marian Lazkano alkateak animatu du jendea lehiaketa ikustera joan dadin. «Ohitura bihurtzen ari da Zizurkilen halterofilia txapelketa bat urtero antolatzea», gaineratu du eta Danena-Olaederra taldeak azken urteotan lortzen ari den emaitzak azzimarratu ditu.

tolosaldeko hitza.

iragarki laburrak.com

zure-iragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

iragarki laburrak.com
euskalteko iragarki laburren atona



Ibarra Taldeko kideak: Jon, Laiane, 'Peris', 'Txuntxu', Amaia, Itziar, Ikutz, 'Txantxan', Olatz, Itziar, Nerea, Xabi, Joseba eta Oier. HITZA

Zizurkil eta Asteasurekin batera Ibarra Xiba finalean aurkitzen da

V. Euskal Herrien Arteko Euskal Jokoak » Ekainaren 28an jokatuko dute V. Xiba jaialdiaren finala Idauze Mendin, Zuberoan.

ASIERIMAZ

Ibarrak, aurrez Zizurkil eta Asteasurekin batera, Xiba jokoen finalerako txartela lortu zuen iragan asteburuan Usurbilen (Gipuzkoa). V. Euskal Herrien Arteko Euskal Jokoen finala hilaren 28an, larunbatean, jokatuko dute Idauze Mendin (Zuberoa).

Usurbilgo saioa

Usurbilen Gipuzkoako Herrien arteko Xibajaialdikobigarren kanporaketa jokatu zen. Bertan lehian aritu ziren zazpi taldeak hauek izan ziren: Igeldo, Ibarra, Hernani, Egia, Usurbil, Antigua eta Tolosa.

12:00etan hasi ziren demak. 7 taldeek hainbat proba egin zituzten. *Jaso Altxa* izeneko atalaren barnean, harri-jasotzen, ingudea-



Ibarra Igeldoren atzetik geratu arren, finalean egongo da ekainaren 28an, Zizurkil eta Asteasurekin batera. HITZA

rekin eta lasto altxatzen ibili ziren herri kirolariak. *Auzolanean* txinga-eramatea, trontza, zaku-eramatea, eta lokotx-biltzea probak aurkitzen ziren. Hauetaz gain, sokatira, ziba-jaurtiketa, dantza eta tokalehian aritu ziren.

Bigarren kanporaketaren amaieran, Igeldo eta Ibarra sailka-

tu ziren finalerako, 663 eta 658 punturekin. Finala ekainaren 28an jokatuko dute Idauze Mendin, Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren barruan. Ibarrarekin batera bertan egongo dira Asteasu eta Zizurkilgo taldeak. Azken final honetan Euskal Herri osoko 24 talde elkartuko dira lehian.

osaten dute, ni entrenatzaile bezala eta estrategia lan garrantzitsuetan aritzen naiz. Taldeko hainbat kide parrandetatik kurrundu eta lanean gogor jarri behar izan ditut, ingudearekin aritzen den neska kasua, bat aipatzearren. Orain finalean gaude eta, beraz, harro nagor.

Ibarrako taldea

Ibarrako taldearen entrenatzailea *Txantxan* da. Finalaren atarian, taldearen nondik norakoak azaldu nahi izan ditu: «Taldea 12 kirolarik

Iragarki laburrak

LANA

■ **Anoeta.** Pertsona bat behar da Anoetan hiru haur zaintzeko. Uztailaren goizez. Interesatuak deitu 659 98 16 87 telefono zenbakira.

Laburrak

'Naparra' gogoratuko dute bihar 12:00etan Igarolan

LIZARTZA » *Naparra*ren XXVIII. urteurrena gogoratuko dute bihar 12:00etan. Lizartzako familiaren Igarola baserrian Joxe Miguel Etxeberria Alvarez, *Naparra*, euskal errefuxiatuaren bahiketa eta desagertaraztea gogoratuko dute monolitoaren aurrean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gaur 19:00etan prentsaurrekoa plazan

IBARRA » Hainbat ibartarrek prentsaurrekoa eskainiko dute gaur 19:00etan Ibarrako plazan *Udal Baztertzaila Ez! Herriararen erabakia errespetatu!* lelopean. «Herriko egoeraren eta jaien inguruan» mintzatuko dira eta ibartarrei bertara agertzeko deia luzatu diete.



Finalerako kamisetak oraindik ere salgai

LEITZA • Aurrera Pilota Eskolak ateratako kamisetek izan duten arrakasta ikusi eta gero, herenegun berriro zerrendak ireki zituzten, finala amaitu ondoren ere kamiseta gehiagoko eskatuko baitituzte. Hori dela eta, herenegun, Aurrera elkartearen egoitzaren atarian ilada bat osatu zen eta ber-

tan izena eman zutenek atzo jaso zituzten kamisetak Aurreran, 19:00etatik 21:00etara. Gaur ere bertan izanen dira, 11:00etatik 13:00etara. Gainera, atzo goizean azokan jarri ziren eta beste 70 saldu zituzten. Zerrendak asteazkenara arte zabalik mantenduko dituzte. n.g.

Laburrak

HITZA Txapelketako partidak, gaur eta etzi

PILOTA • Hitza Pilota Txapelketaren baitan, ondorengo partidak jokatuko dituzte gaur, eta etzi, Tolosako Beotibar pilotalekuan: gaur, 12:00etan, Etxeberria-Olaldek Kortabarria-Aretxabaletaren aurka ariko dira, eta ondoren, Renobales-Bengoetxea Urrutikoetxea-Galarragaren aurka. Etzi, 19:00etan, Amantegi-Lopez Onsalo-Otxandorenaren aurka ariko dira. Partida hauek finalurrekoak dira.

I. Frontenis Txapelketa bihar amaituko da

BALIARRAIN • I. Frontenis Txapelketa 60 lagunek hasi zuten, eta 8 besterik ez dira geratzen. Hain zuzen ere, asteburu honetan bukatuko da txapelketa. Lau laguneko 2 taldetan daude banatuta 8 jokalaria. Gaur, 08:00etatik 14:00etara talde bakoitzeko ligaxka jokatuko dute. 3 partida jokolari bakoitzak 22 tantura. Eta bihar, talde bakoitzeko irabazleek finala jokatuko dute, 30 tantora, 12:30ean hasita. Aurretik, talde bakoitzeko bigarren gelditu direnak 3-4 posturako jokatuko dute, 11:30ean.

640 kiloko txapelketako bigarren jardunaldia, bihar, Martiartun

Areso • Lehenengo jardunaldia joan den igandean izan zen eta Aresokoek laugarren postua lortu zuten.

NAIARA GARZIA

Joan den asteburuan bi asteburuko etenaldia eta gero, Euskadiko Sokatira Txapelketari ekin zioten berriro, oraingoan, 640 kiloko kategorian. Lehenengo jardunaldia ekainaren 8an izan zen, Kortezubin eta bihar Martiartun lehiatuko dira.

Lehenengo jardunaldia

640 kilotako kategorian ondorengo taldeak parte hartzen ari dira: Areso, Getxo, Goiherri A, Goiherri B, Gaztedi eta Mutriku. Areso laugarren postuan gelditu zen joan den asteburuan eta beste behin Goiherri A-k (Erandio, Bizkaia) lortu zuen lehenengo postua, 15 punturekin. Gaztedik (Laukiz, Bizkaia) 12 puntu lortu zituen, Mutriku (Gipuzkoa) 9 puntu, Aresok 6, Goiherri B-k (Erandio) 3 puntu eta Getxok ez zuen punturik eskuratu.

Beraz, lehenengo jardunaldia eta gero sailkapen orokorra horre-

la gelditu zen: Goiherri A-k 6 puntu, Gaztedik 5 puntu, Mutriku 4 puntu, Aresok 4 puntu, Goiherri B-k 2 puntu eta Getxok puntu bat.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «Kortezubiko zelaiko lurra oso biguina zenez, tiraldiak oso luzeak izan ziren, 20 minutu, 15 minutu eta 10 minutukoak». Saioak, orohar, lau ordu eta erdi iraun zituen eta Goiherri A nahiko erraz nagusitu zen, Gaztedirekin lehia gogorra izan zuen arren.

«Goiherri A gure gainetik dago nabarmen», dio Xabier Arraras Areso taldeko sokatiralariak, «baina Gaztedirekin ez du halako alderik. Lehenengoan ere tiraldi gogorrrak izan zituzten, eta 680koan jardunaldi batean Gaztedik irabazi zion. Bi talde horiek maila hobexearago daukate, eta atzeraxeago gainekoak gaude».

Arrarasek azaldu duenez, «paperik hoberena» 600 kilokoan egin dezakete. «Handietan bagenekien ez genuela gehiegizko gerriarik emanen, lehenengoan nahiko txukun aritu ginen, jende gazte asko daukagula kontutan hartuta, baina gustura gelditu ginen, tiraldi onakegin genituen. Baina 600ekoan taldea osatuagoa eta konpentatsuagoa aterako dugula uste dugu».



Aresoko sokatira taldea Berriatun, duela 2 urte. HITZA

Biharko jardunaldiari dagokionez, emaitzan lurraren egoerak zerikusia duela adierazi du Arrarasek. «Ikusi egin beharko dugu lurra nola dagoen, eta zozketa nola tokatzen den. Lehengoan, adibidez, lau ordu t'erdiko saioa egin genuen eta normalean bi ordutan amaitzen dugu, baina tiraldiak asko luzatu ziren lurra biguna zegoelako».

Finala ekainaren 28an izanen da eta 600ekoan eta 580ekoan ere parte hartuko dute. Honetan, gainera, finala Areson izanen da, lehenengo jardunaldiak non izanen diren zehaztu gabe dagoen arren.

ARAMBURU

Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m², guztiz eraberritua.

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pztla)

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. igogailuarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000pztla negoziagarria)

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Martin Jose Iraola kalean.

Salgai (Ibarra). Etxebizitza. San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000pztla)

Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000pztla)

Salgai (Villabona). Etxebizitza, guztiz eraberritua. Amasan.

Salgai (Legerreta). Etxebizitza eraberritzeko.

Salgai (Ibarra). Lokala. Euskal Herria kalean.

Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amartzen (Tolosa) eta Idioagana (Ibarra).

Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, ximiniarekin, erdigunean.

Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan, Trinkele plazan eta San Frantziskon.

Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko, Araba etorbidean eta Baxler Zalekian.

Alokatzeko (Ibarra). Pabiloi industriala. Leaburuko bidean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Double agents eta Hotel musika taldeen kontzertua Bonberean 22:30ean.
■ **Tolosa.** Udal Musika Eskolako taldeen kontzertua, 19:30ean.

Jaiak

■ **Ibarra.** Gazte Festak: 12:00etan ume jokuak plazan; 16:00etan mus txapelketa Sendi Ekintzan; 16:30ean Xurdinen euskarokea plazan; 17:30ean txokolatada eta tortillada; 18:00etan Alurr dantz taldea; 22:30ean Stupenda Jones eta Akerbeltz; gauean Gas taldea.
■ **Tolosa.** Sanjoanek: 10:00etan eta arratsaldez kale saskibaloia; 11:00etan dantzari txikien bilkura; 16:00etan graffitiak Trianguloan; 18:00etan Kultur Etxeoko dantza tailerreko ikasleen emanaldia Leidorren eta 23:00etan Jojo Borda-garai Fronton kafetegian.

Kirolak

■ **Zizurkil.** Federazioen arteko Euskadiko Halterofilia Txapelketa Intxaur frontoian 18:00etan.

Antzerkia

■ **Villabona.** Zuk-zuk jaunaren alfabeta haurrentzako antzezlan, Gurea antzokian 18:00etan, doan.

Ikuskizunak

■ **Villabona.** Oinkariko gaztetxoek Iraganaren geroa dantzaren ikuskizuna Olaederran, 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 651040.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Yurre Peñagarikano, Agenda 21eko zinegotziak, (ezkerretik hasita laugarrena) jaso zuen saria Madrigo azokan. HITZA

Tolosako Udalak saria jaso du «hondakinen kudeaketa egokia, garbitasuna eta ingurumenaren alde eginiko zainketa» dela-eta; Ifemako azokan jaso zuen Yurre Peñagarikano zinegotziak saria.

'Urrezko erratza' garbitasunari

ERREDAKZIOA

Erratza asko erabili omen dute tolosarrek eta herria hain txukun mantentzeagatik beste erratz bat eman diote Udalari. Hain zuzen ere *Urrezko erratza* izeneko saria jaso du Tolosako Udalak, Madrilen ospatu berri den Hirigintza eta Ingurumen Azokan, Ifeman.

Arduradunek jakitera eman dutenez, saria «hondakinen kudeaketa egokiarengatik, garbitasunarengatik eta ingurumenaren zainketaarengatik» eman diote Tolosari. Pozik egoteko arrazoia dute, beraz, honen alde lan egiten duten guztiak.

«Tecnologia berrien erabilera»

Arrazoi hauekin guztiak batera «herri garbia izatea eta teknologia berrien erabilera bultzatzea» go goraipatu dituzte sariaren emailek. Yurre Peñagarikano, Tolosako Udaleko Agenda 21eko zinegotzia, arduratu zen saria jasotzeaz, Madrilen bertan.

Hain zuzen ere, Urrezko eta Zilarrrezko erratzen lehiaketa hau bi urtez behin ospatzen dute, eta aurtengoan ingurumena ardatz izan duen azokaren baitan izan da. Antolatzaileak Hondakinen kudeaketa eta ingurumenaren elkarrekoak dira, ISWAren partaide direnak.

Lehiaketaren helburua, udalen lana goraiatzea

Elkarte honek banatzen duen sari honen helburua «udalek ingurumenaren alde eta hondakinen kudeaketa alde egiten duten lana goraiatzea da, bai eta martxan jarri dituzten proiektuen alde egitea ere». Proiektu horiek herri moduan zein industriekin egiten diren lanak barnera dezakete.

Halaber, lehiaketak «aurrera-ten teknologikoak bultzatu nahi» duela baieztatu dute antolatzaileek, eta «bizitza kalitatea eta jasangarritasuna hobetzea lortzeko beharrezkoa den kontzientziarioa» eragitea.

Tolosari hainbat ikerketa

Lehiaketaren partaideek Tolosari sari hau eman baino lehen hainbat ikerketa egin dituzte herrien inguruan. Ikerketa osatzeko, telefono bidezko inkesta bat ere egin dute herritarren artean. Inkesta honen bitartez, tolosarrek «pozik eta gustura» daudela ondorioztatu dute, «herriak duen garbitasun mailarekin».

Azokan, Tolosak ere bere lekua izan du, stand baten bitartez. Bertan, ordezkariak Tolosan erabiltzen dituzten garbitasun metodoak aurkeztu dituzte. Zorionak, beraz, Tolosa garbi baten alde egiten duten guztiak.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Ekainak 20
Ostirala • 20:30ean
Tolosako Leidorren

